

EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko IV. Azterlana 2018

Laburpen exekutiboa

1. Azterlanaren helburuak eta metodologia

Azterlan honetan **2018ko urriaren 18tik 19rako gauean** EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen zenbaketako emaitzak biltzen dira. 2012 urteaz geroztik bi urtez behin egiten diren azterlanen laugarren edizioa da, eta gure inguruko beste hiri batzuek ere egiten dituzten gaueko errolda-zenbaketen metodologian oinarritzen da. Zenbaketako eragiketa horiek kalean literalki bizi diren edo aterpetxeetan edo ostatua duten beste baliabide batzuetan aldi baterako ostatu hartuta dauden pertsonen zuzenduta daude, eta balio handiko metodologia da gaur egun; ez bakarrik espazio eta une jakin batean egoera horretan dauden pertsonen kopurua ezagutzeko, baita haien oinarritzko ezaugarriak eta beharrak ezagutzeko ere.

Azterlan honek eskaintzen dituen datuak **bi motako gaueko zenbaketak** aldi berean egitearen emaitza dira, toki geografiko eta kokaleku desberdinekin, bata kalekoa eta bestea ostatua duten baliabideen arlokoa:

- Kaleko gaueko zenbaketaren kasuan, udalerrri hauek izan ziren partaide: Amurrio, Arrasate, Barakaldo, Bergara, Bilbo, Donostia, Eibar, Erandio, Errenteria, Galdakao, Getxo, Gueñes, Hernani, Irun, Laudio, Legazpi, Leioa, Oiartzun, Pasaia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Tolosa, Urduña, Gasteiz eta Zalla. 2018an, 26 udalerrri horiek EAEn bizi ziren biztanleen bi herenak biltzen zituzten.
- Ostatu-baliabideetan egindako zenbaketari dagokionez, azterketaren eremu geografikoa hiru Lurralde Historikoei dagokiena izan zen. Guztira, 411 egoitza-baliabidek parte hartu zuten ikerketa horretan; horietatik 81 Araban zeuden, 176 Bizkaian eta 154 Gipuzkoan. Datuak bildu ziren unean, parte hartutako zentroetan –EAEko 44 udalerritan banatuta– 3.247 plaza zituzten, bizitegi-bazterketa larriko hainbat egoeratan dauden pertsonentzat.

Aurreko zenbaketetan bezala, laugarren edizio honetan boluntario-talde handi baten laguntza ezinbestekoa izan da, zenbaketaren gauean kalean lo egiten zuten pertsonak aurkitu eta haiei zuzendutako galdetegia aplikatzeko. 2018an, **920 boluntariok** parte hartu zuten zenbaketan, gehienak emakumeak (%66,4). Estalitako bizitegi-lurzoruaren azalera kontuan hartuta, batez beste, kilometro karratuko 10,7 boluntario ibili zirela esan daiteke partaide izandako 26 udalerritan.

Ostatu-baliabideetan egindako zenbaketari dagokionez, **zentro bakoitzaren kudeaketaz arduratzen ziren langileen laguntzari esker** egin zen. Pertsona horiek zentroaren okupazio-datuak biltzeaz eta ostatu hartutako pertsonen zuzendutako inkestak egiteaz arduratu ziren. Landa-lana egin aurretik, administrazio publikoetako eta erakunde pribatuetako maila desberdinetako profesionalen artean egindako **koordinazio teknikoko lana** aipatu behar da, **zentroen direktorio** sakon eta eguneratua egiteko, zentroetan egindako zenbaketan oinarritua dagoena.

Zentroen direktorio honetan zerbitzu mota hauek sartu dira: **gizarte-zerbitzuen euskal sistemako** lehen- eta bigarren-mailako **arretako zentroak eta zerbitzuak**, gizarte-bazterkeriako edo gizarte-larrialdiko arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzat eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat; nazioarteko babes-eskatzaille edo onuradunentzako **harrera-pisuak**, errefuxiatuak hartzeko estatuko sistemaren barruan integratuak daudenak; **larrialdiko edo bitarteko arreta-aterpeak iragaitzazko migratzaileentzat**, euskal erakundeek zenbait erakunderekin lankidetzan gaiturik daudenak.

Aurrez aipatu bezala, ikerketa honen helburua ez da soilik jakitea une jakin batean bizitegi-bazterketa larrian zenbat pertsona bizi den, baita pertsona horien ezaugarri nagusiak eta oinarritzko beharrak ezagutzea ere. Horretarako, haien lankidetzaz izatea funtsezkoa da. Guztira, proposatutako **galdetegiari erantzuteko, bizitegi-bazterketa larrian dauden 1.543 lagunek parte hartu zuten**. Zifra horren arabera, erantzun-tasa ia %80koa da, behintzat 18 urtetik gorako pertsonak berariaz hartuta (galdetegia ez baita adingabeentzat) eta, kalean, esna zeudenak soilik kontuan hartuta. Hain zuzen ere, kalean jasotako erantzun-tasa txikiagoa izan zen, ia ehun pertsona lokartuta zeudelako aurkitu izandako unean. Zifra horiek oso emaitza positiboak ematen dituzte, baina mugatuak dira: kalean aurkitu ziren pertsonen artetik %54 baino ez baitzen elkarrizketatu. Era berean, aurreko edizioen pareko parte-hartze maila ikusten da, eta horrek agerian uzten du bi urtez behingo ikerketa baten higadura nulua edo urria, non ez den harrizkoa esperientzia errepikatzea etxerik gabeko pertsonen, boluntarioen eta zentroetako profesionalen.

Erabilitako **galdetegia** berbera izan zen 26 udalerritan eta zentro guztietan. Ikerketa honetan parte hartzen duten pertsonen egoera zehatza ezagutzeko tresna **hogeita hamar galdera baino gehixeagok** osatzen dute. Elkarrizketatuak izan zirenei honakoei buruzko kontsultak egin zitzaizkien: oinarritzko ezaugarriak; administrazio-egoera; etxegabe-ibilbidea eta gizarte-harremanak; ikasketa-maila, jarduerarekiko harremana eta diru-sarreraren iturriak; zerbitzu publikoen erabilera eta osasun-egoera. Aurtengo edizioan erabilitako galdetegian hamar galdera baino gehiago murriztu dira duela bi urtekoarekin alderatuta, aurreko edizioetan parte hartu zuten boluntario gehienek egindako eskaerari erantzuten. Hala eta guztiz ere, aurkeztutako galderak beste urteetan izandakoen berdinak dira, emaitzak erraz alderatzeko aukera ematen duena.

2. Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopurua

EAEn urriaren 18tik 19rako gauean bizitegi-bazterketa larrian zeuden pertsonen kopuruari buruzko datu nagusiak honako hauek dira:

- **Bizitegi-bazterketa larrian hiru mila pertsona daude.** Zenbaketaren gauean 3.007 pertsona aurkitu zituzten bizitegi-bazterketa larriko egoeran. Guztietatik %17,8 (534 pertsona) kaleko gaueko zenbaketetan aurkitu zituzten. Horien artean, alde batetik, kalean lo egiten ari zirela edo lo egiteko intenzioa zutela aurkitu zituzten 430 pertsona daude; eta, bestetik, Donostian eta Irunen aurkitu zituzten 104 pertsona migratzaile, Frantziara joateko ibilartizta-egoeran zeudenak. Gainerako %82,2k (2.473 pertsona) azterlan honetan jasotako ostatu-baliabideetako batean hartu zuen ostatu. Zehazki, iaz igarobidean zeuden migratzaileak hartzeko prestatutako aterpetxeren batean 124 lagunek lo egin zuten (%4,1); 459 lagunek errefuxiatuei zuzendutako harrera-pisuetan hartu zuten ostatu (%15,3); 497 pertsonak etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxeetan eta gaueko harrera-zentroetan (%16,5); eta 140 emakumek eta haien ardurapeko seme-alabek (4,7%). Gainerako 1.253 lagunek gizarte-zerbitzuen ostatu duden baliabideetan aurkitu zituzten, gizarte-bazterketako arriskuan edo egoeran dauden pertsonen zuzentzen zaizkienak (%41,7). Aurkitutako pertsona guztietatik 452 Araban zeuden (%15), 1.362 Bizkaian (%45,3) eta 1.193 Gipuzkoan (%39,7).

1. Taula. Bizitegi-bazterketa larriko egoera desberdinen kopurua, banaketa eta tasa, Lurralde Historikoaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuz- koa	EAE
Pertsona-kopurua				
Kalean (gaua igarota)	23	267	140	430
Kalean, iragaitzako migratzaileak	0	0	104	104
Iragaitzako migratzaileentzako aterpetxeetan	0	74	50	124
Aterpetxe eta gaueko harrera-zentro arruntetan	94	231	172	497
Errefuxiatuentzako harrera-pisuetan	127	190	142	459
Genero-indarkeriako baliabideetan	45	62	33	140
Gizarte-zerbitzuen ostatu duden beste zentro batzuetan	163	538	552	1.253
Guztira	452	1.362	1.193	3.007
Guztira, iragaitzako migratzaileak eta errefuxiatuak gabe	325	1.098	897	2.320
Banaketa bertikala (%)				
Kalean (gaua igarota)	%5,1	%19,6	%11,7	%14,3
Kalean, iragaitzako migratzaileak	--	--	%8,7	%3,5
Iragaitzako migratzaileentzako aterpetxeetan	--	%5,4	%4,2	%4,1
Aterpetxe eta gaueko harrera-zentro arruntetan	%20,8	%17,0	%14,4	%16,5
Errefuxiatuentzako harrera-pisuetan	%28,1	%14,0	%11,9	%15,3
Genero-indarkeriako baliabideetan	%10,0	%4,6	%2,8	%4,7
Gizarte-zerbitzuen ostatu duden beste zentro batzuetan	%36,1	%39,5	%46,3	%41,7
Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0
Guztira, iragaitzako migratzaileak eta errefuxiatuak gabe	%71,9	%80,6	%75,2	%77,2

Iturria: EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko IV. Azterlana 2018.

- **Bizitegi-bazterketa larriaren tasarik altuena Gipuzkoan erregistratu da.** Biztanleriari dagokionez, bizitegi-bazterketa larriko egoeren intzidentzia handiena duen lurraldea Gipuzkoa da, 1.000 biztanleko 1,656 pertsonako tasa baitu aurrez deskribatutako egoeraren batean. Araban, tasa hori 1,374 pertsonakoa da mila biztanleko, eta Bizkaian %1,185ekoa. Gipuzkoan erregistratutako tasarik handiena, nolahi ere, igarobidean zeuden migratzaileen kopuru handiagoari zor zaio –bai kalean bai berariazko aterpetxeetan–, baina, batez ere, gaueko harrera-zentroez bestelako gizarte-zerbitzuen ostatu duden baliabideetan ostatu hartzen zuten pertsonen tasa handiagoari eta genero-indarkeriarako baliabideei. Baliabide horiek Gipuzkoan beste bi lurraldeetan baino plaza-estaldura handiagoa dute.

2. Taula. Pertsona- eta plaza-tasa 1.000 biztanleko, Lurralde Historikoaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuz- koa	EAE
Pertsonen tasa* 1.000 biztanleko (‰)				
Kalean (gaua igarota)	0,083	0,357	0,328	0,296
Kalean, iragaitzazko migratzaileak	--	--	0,244	0,072
Kalean: guztira	0,083	0,357	0,572	0,368
Iragaitzazko migratzaileentzako aterpetxeetan	--	0,064	0,069	0,056
Aterpetxe eta gaueko harrera-zentro arruntetan	0,286	0,201	0,239	0,226
Errefuxiatuentzako harrera-pisuetan	0,386	0,165	0,197	0,209
Genero-indarkeriako baliabideetan	0,137	0,054	0,046	0,064
Ostatua duten beste zentro batzuetan	0,496	0,468	0,766	0,570
Baliabideetan: guztira	1,304	0,952	1,317	1,125
Baliabideetan: guztira, iragaitzazko migratzailearik eta errefuxiatu gabe	0,988	0,955	1,245	1,055
Guztira	1,374	1,185	1,656	1,367
Plaza-tasa 1.000 biztanleko (‰)				
Iragaitzazko migratzaileentzako aterpetxeak	0,167	0,094	0,150	0,123
Gaueko harrera zentro eta aterpetxe arruntak	0,331	0,224	0,261	0,252
Errefuxiatuentzako harrera-etxebizitzak	0,462	0,183	0,268	0,252
Genero-indarkeriako baliabideak	0,228	0,111	0,100	0,125
Ostatua duten beste zentro batzuk	0,742	0,578	0,948	0,724
Guztira	1,931	1,190	1,726	1,477
Baliabideetan guztira, iragaitzazko migratzailearik eta errefuxiatu gabe	1,301	0,913	1,309	1,101

* Kale-tasak zenbatzean parte hartu duten 26 udalerrietako biztanleen arabera kalkulatu dira. Gainerako kasuetan, guztizkoa barne, Lurralde Historiko bakoitzeko biztanleria hartu da kontuan.

Iturria: EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko IV. Azterlana 2018.

- **Kalean aurkitutako pertsonetatik erdia Bilbon aurkitu zituzten, nahiz eta parte hartzen duten 26 udalerrietako biztanleen %24 baino ez diren.** Kalean aurkitutako etxerik gabeko 430 lagunetatik (iragaitzazko migratzaileak kontuan hartu gabe), 336 pertsona (%78,1) EAEko hiru hiriburuetatik batean aurkitu zituzten. Bilbon 214 pertsona zenbatu zituzten (guztira aurkitutako 430 pertsonen %49,8); Donostian 101 (%23,5); eta Gasteizen 21 (%4,9). Barakaldon (biztanle gehien dituen laugarren udalerria) 30 pertsona (%6,9), Irunen (%14) eta Getxon 10 pertsona aurkitu zituzten. Azkenik, gainerako 20 udalerrietatik 14tan 40 pertsona aurkitu zituzten; eta ez zuten inor aurkitu sei herritan (Laudio, Gueñes, Portugalete, Urduña, Zalla eta Pasaia). Datu horiek populazio-datuak dituzten tasetan aztertuta, kaleko etxegabe-tasarik handiena duen herria Bilbo dela erakusten dute (0,619 pertsona 1.000 biztanleko). Atzetik, Oiartzun (10.200 biztanle baino gehixeago), non 6 pertsona aurkitu zituzten (‰0,584); Donostia (‰0,541); eta Bergara, ia 14.600 biztanleko udalerrri gipuzkoarra, ‰0,343ko tasa duena eta 5 pertsona aurkitu zirena.
- **Kalean dauden pertsonen kopuru erreala 700 pertsonakoa izan liteke.** 2012. urteaz geroztik erabiltzen ari diren bi kontraste-metodoak aplikatu ondoren (zantzuak zenbaketaren gauean bertan jasotzea eta eguneko zentroetan hurrengo goizean kontsultatzea), urriaren 18tik 19rako gauean kalean zeuden pertsonen kopurua %64 handiagoa izan daiteke gaueko zenbaketan benetan ikusitakoaren aldean. Hau da, hasierako 430 laguni, ustez kalean lo egin arren zenbatu gabeko 277 pertsona gehitu dakizkieke, beraz, emaitza 707 pertsonakoa izango litzateke. Zenbaki absolutuetan, Bilbo etxegabe-egoeren gehikuntza handiena erregistratu duen udalerria izan da, eta 349 pertsona izan daitezke (214 izan beharrean) udalerrri horretako espazio publikoetan edo egitura desegokietan gaua igaro dutenak. Donostian ere igoera hori garrantzitsua izango litzateke, 198 lagunek igaro baitzuten gaua, hau da, esleitutako kopurua baino %96 gehiagok. Gorakada hori askoz txikiagoa izan da zenbaketan parte hartu zuten gainerako herri guztietan.
- **Ia 1.900 pertsona daude ostatua duten gizarte-zerbitzuetako zentroetan.** Zenbaketaren gauean, guztira 1.890 biztanlek hartu zuten ostatu gizarte-zerbitzuen ostatua duten zentro eta zerbitzu mota guztietan. Horietatik guztietatik, laurden bat baino gehixeagok, 497 pertsona,

aterpetxeetan eta gaueko beste harrera-zentro batzuetan zeuden. Era berean, 140 emakume eta haien seme-alabak genero-indarkeriaren biktimetzako udal- edo foru-mailako ostatua duten zerbitzuetan zeuden; eta gehienak, 1.253 pertsona, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eta (neurri txikiagoan) hirugarren sektoreko erakundeen sare pribatuak baztertuak izateko arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako ostatua duten gainerako zerbitzuetan aurkitu zituzten. Euskadi osoko 318 zentro desberdinez ari gara, 2.421 plazaz eta 1.000 biztanleko 1,101 plazako baterako estalduraz.

- **459 pertsona nazioarteko babesaren eskatzen dutenentzako harrera-baliabideetan.** Urriaren 18tik 19rako gauean, 459 pertsona zeuden Euskadin dauden zentroetan ostatu hartuta, nazioarteko babesaren eskatzaileei edo onuradunei zuzentzen zaiena. Zenbaketan horrelako zentroak zehatz-mehatz sartzeko lehena da. 2018ko urrian, asilo-eskatzaileak, errefuxiatuak eta aberrigabeak artatzeko sareak (arreta-sistema propioa duen arau-esparru batean kokatzen dituen berariazko egoera duten pertsonak) 87 zentro eta 555 plaza zituen Euskadi osoan. 459 pertsonetatik, %41,4 Bizkaian zeuden, %27,7 Araban eta %30,9 Gipuzkoan. Kasu honetan, batez ere Hegoamerika eta Ertamerikatik etorritako pertsonen ari gara; gehienbat, Venezuela, Kolonbia, Nikaragua eta Hondurasetik.
- **228 migratzaile igarobidean, horietatik bi heren Gipuzkoan.** Urriaren 18tik 19rako gauean, EAEn –bai kalean bai xede horretarako berariaz prestatutako aterpetxeetan– 200 pertsona baino gehiago aurkitu ziren, iragaitzako migratzaileen izenarekin aipatu ditugunak. Saharaz hegoaldeko jatorria duten pertsonen ari gara (gehienez, Ginea-Conakri, Mali, Boli Kosta bezalako herrialdeetatik etorritakoak); mendebaldeko Mediterraneoaren bidetik sartzeko direnak, Magrebetik Espainiako hegoaldeko kostaldera, eta gure erkidegoan aldi baterako, ia modu iheskorrean, lehorreratzeko direnak, Europako beste herrialde batzuetara egiten duten bidaiak jarraitzeko asmoz. Gaur egun, pertsonen fluxu horrek nabarmen egin du behera, baina hazkunde oso nabarmena izan zen 2018ko udatik aurrera, Afrikatik Europara iristeko ibilbide nagusiak ekialdetik mendebaldera aldatzearekin batera. Egoera horretan aurkitutako 228 lagunetatik 104 kalean aurkitu zituzten, Donostian eta Irunen; gainerako 124ak, berriz, euskal erakundeek horretarako prestatutako hainbat baliabideetan zeuden.
- **Aterpe gabeko pertsonak, etxebizitzarik gabekoak eta etxebizitza desegokian daudenak, ETHOSen arabera.** Ikerketa honen bitartez aurkitutako 3.007 lagunetatik %23,9 'aterpe gabe' zegoen, hau da, ez zituzten etxerik hartzen duguna osatzen duten hiru dimentsioak (fisikoa, legezkoa eta soziala). Hemen sartzeko bide publikoetan lokalizatu ziren pertsonak bai gauez bakarrik aterpea eskaintzen duten aldi baterako harrera-zentroetan eta aterpetxeetan gaua igaro zutenak, baita iragaitzako migratzaile gisa identifikatu zirenak ere. Era berean, %73 'etxebizitzarik gabe' zegoen, hau da, 'aterpe' baterako sarbidea izan arren, ez zuten etxerik, ez zeudelako eremu hori osatzen duten gainerako dimentsioak behar bezala instalatu. Egoera horretan, guztira, 2.196 pertsona identifikatu ziren EAE osoan. Horietako gehienak (1.415 pertsona) ETHOS tipologiako 3. kategoria operatiboan sartutako egoitza-egoeraren batean zeuden, hau da, gaueko harrera-zentroetan (220), aldi baterako igarotze-bizitokietan (162 pertsona) edo egonaldi ertaineko baliabideetan eman zuten gaua nolabaiteko laguntza-mailarekin, baina aldi baterako (1.033). Gainerakoek kolektibo espezifikoetara zuzendutako baliabideetan jarraitzen zuten, zehazki, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak (140), nazioarteko babesaren eskatzaile edo onuradunak (459) eta egoera kronifikatua edo narriadura pertsonal handia duten pertsonak (182). Azkenik, %2,8 etxebizitza-egoera desegokian zegoen. Kaleko gaueko zenbaketera ETHOS tipologiako 11. kategoria operatiboan jasotzen dituen espazioetan aurkitu ziren (edo lo egingo zutela adierazi zuten) pertsonen kopuru txikia da, beraz, espazio publiko eta kanpokotzat hartzen denaz bestelakoa. Egoera horietan 85 pertsona zeuden, eta gaua pasatzera zihoazela (edo egitear) ibilgailu batzuetan aurkitu zituzten, hala nola, turismoetan edo karabanetan (10 pertsona), txaboletan (23), kanpin-dendetan edo lonjetan (3) eta eraikin abandonatuetan edo lo egiteko egokiak ez direnetan (49).

3. Bizitegi-bazterketa larriko egoeren joera nagusiak

ETHOS (*European Typology on Homelessness and Housing Exclusion*) sailkapena erreferentziatzat hartuta, ikerketa honetan jasotako egoeren zerrenda eta kuantifikazioak agerian uzten du bizitegi-bazterketa arazo anitza eta konplexua dela. Horregatik, errealitate oso desberdinak bereiztea komeni da haien artean –are gehiago kontuan hartzen bada tipologia horren helburuen artean daudela arazoari aurrea hartzeko eta arreta emateko politikak hobetzen eta koherentziaz jokatzeko laguntzea–, kausekin, beharrek eta arreta-sistema desberdinekin ere. Jarraian azalduko dugun analisiak, beraz, 2012. urtetik jasotzen ari diren egoera berberak ditu ardatz. Ez dira sartzen, beraz, migratzaileak Frantziara joatearekin lotutako egoerak, ezta harrera-fasean dauden nazioarteko babesaren eskatzaile edo onuradunen egoerak ere.

- **Bizitegi-bazterketa larriko egoerak ugaritu al dira Euskadin?** Gaueko zenbaketek ematen dituzten bilakaera-datuak agerian uzten dute kalean lo egiten duten pertsonen kopuruak nabarmen egin duela gora. 2016 eta 2018 artean, kalean aurkitutako pertsonen kopurua 274 pertsonakoa izatetik 430 lagun izatera igaro da; hala ere, bi zifrak bi une jakin eta udalerrri kopuru ezberdinari dagozkio (nahiz eta oso antzekoak izan). Igoera hori, neurri handi batean, EAEko hiru hiriburuetakoa bitan izandako gorakadaren ondorio izan da: Bilbon (112 pertsona 2016an, eta 214 pertsona 2018an) eta Donostian (48 pertsona eta 101 pertsona, hurrenez hurren), baita Barakaldon izandako gorakada garrantzitsua ere (12tik 30 pertsonara). Aldiz, behatutako pertsona-kopurua zertxobait jaitsi da: Gasteizen (2016an baino bederatzitik gutxiago); Getxon (bost pertsona gutxiago); Santurtzin eta Pasaian (lau gutxiago bakoitzean); eta Irunen eta Erreterian (hiru pertsona gutxiago bakoitzean). Bilbon eta Donostian 2018ko eta 2016ko datuak alderatuz gero, gehien handitu den taldea gizonezko atzerritarrena eta 30 urtetik beherakoena izan da. Donostiako kasuan, 30 urtetik beherako gizonezko atzerritarren kopurua batetik 42ra pasa da eta Bilboko kasuan 26tik 69ra. Gazte guzti hauei buruzko informazio zehaztua eskuragarri ez dagoen arren (Donostiako kasuan %57 eta Bilboko kasuan %79), baieztatu daiteke kasu gehienetan gazte hauek urtebete edo gutxiago daramatela Euskadin bizitzen (%92 bi hiriburuetan) eta kasu gehienetan Magrebetik datozela (Bilbon %81 eta Donostian %54, non Saharaz hegoaldeko jatorria duten gazteak ere badauden). Donostiako gazte hauen %8 eta Bilboko %10 adingabeen babeserako zentro batean egon dira.

Aterpetxeetan edo gaueko harrera-zentroetan gaua igarotzeko lotutako egoerek gora egin dute, baina oso arinki. 2018ko urriaren 18tik 19rako gauean, guztira 435 lagunek egin zuten lo hiru hiriburuetan kokatutako baliabideetan, 2016ko urriaren baino 31 pertsona gehiagok (404 pertsona). Guztira, baliabide horiek 17 plaza gutxiago zituzten; beraz, 2016an dagoeneko altua izandako okupazio-mailaren aldean (%83), gaur egungoa askoz handiagoa da (%92).

Hainbat arrazoi direla medio, ezin dira gainerako egoerak zehatz-mehatz alderatu gaueko zenbaketen datuetatik abiatuta. Hala eta guztiz ere, Eustaten etxegabeko pertsonentzako baliabideen estatistikak ematen dituen datuak erreferentziatzat hartzen badira (besteak beste, errefuxiatuentzako harrera-pisuak eta iragaitzako migratzaileentzako aterpetxeak), plaza erabilgarrien kopurua nabarmen handitu dela 2016tik, eta okupazioa %25 handitu dela ikusten da.

- **Atzerritar jatorriko pertsonen garrantzi erlatiboa kalean handitzen da soilik.** Bizitegi-bazterketa larrian dauden eta kalean edo ostatua duen zerbitzuren batean identifikatuta dauden pertsona guztietatik %62 atzerritarrek dira. Ikusitako aldaketa garrantzitsuenek kaleko egoerei egiten diete erreferentzia. Eskuragarri dauden datuen arabera, 2012 eta 2016 artean nabarmen murriztu arren, kalean aurkitutako atzerritarren proportzioa handitu egin da berriro 2018an. Aldiz, aterpetxeetan gaua igarotzeko egoeretan arreta jartzen bada, atzerritarren pisu espezifiko %60 inguruan mantentzen dela ikusten da. Era berean, ostatu hartzeko zerbitzuekin lotutako gainerako egoerak kontuan hartuta, gero eta pertsona gehiago dauden arren, ez da ia aldaketarik gertatu artatutako atzerritarren proportzioan; %60 baino pixka bat gutxiago baitira.

- **Emakumeen gutxieneko presentzia mantentzen da kalean edo aterpetxeetan, baina gora egiten du ostatua duten beste baliabide batzuetan.** Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsona guztien %26,2 baino ez dira emakumeak. Aurreko edizioetan bezala, azterlan honek agerian uzten du emakume gutxieneko bildutako egoerak kalekoak izaten direla (%6,6 baino ez dira). Bestetik, emakumeen presentzia oso txikia da aterpetxeetan edo gaueko harrera-zentroetan, %15,3 baino ez baitira emakumeak. Baliabide horien aldean, berriaz indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutakoak daude (emakume gehienak, noski), eta ostatua duten gainerako zerbitzuak (%32).

Jasotako bizitegi-bazterketa larriko egoeren artean emakumeen presentzia gero eta handiagoa dela esan al daiteke eboluzioaren ikuspegitik? Erantzuna baiezkoa da, baina ñabardurak ageri dira: azken lau zenbaketek ematen dituzten zifra globalak hartuz gero, bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeen hazkundera gizonena baino handiagoa izan da, baita indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako berriazko baliabideak alde batera utzita ere. Hala ere, bizitegi-bazterketa larriko egoeren artean emakumeen garrantzi erlatiboa gero eta handiagoa 'etxebizitarik gabeko' egoeretan bakarrik nabarmentzen da, baina ez 'aterpe gabeko' egoeretan. Bestela esanda, orain dela sei urte baino emakume gehiago daude, baina ostatua duten zerbitzuetan artatutako emakumeak gehiago direlako; ez lehen baino emakume gehiago kalean edo aterpetxeetan, non emakumeen presentziak hutsaren hurrengoa izaten jarraitzen baitu. Ostatu hartzen duten zerbitzuetan emakume gehiago egotea eragin dezaketen faktoreen artean daude seme-alaba adingabeak ardurapean dituzten familiak artatzen dituzten zentroen gorakada –%28,6 ziren (65 zentro) 2012an, eta orain %35,2 dira (96 zentro)–, baita emakumei soilik zuzendutako plazen eskaintza handitzeagatik ere; dela emakumeak bakarrik artatzen dituzten zentroen bitartez, dela gizonak ere artatzen dituzten beste baliabide batzuetan emakumeentzako plazak gordetzeagatik. 2012tik 2018ra bitartean, emakumeentzako plaza-kopurua 164tik 195era igaro da.

- **Gora egin dute seme-alaba adingabeak dituzten familiek bizitokia eskaintzen duten baliabideetan.** 2018ko urriaren 18tik 19rako gauean bizitegi-bazterketa larrian zeuden 2.320 biztanleetatik %12,5 adingabeak ziren; %30,6 18 eta 29 urte bitarteko gazteak; %24,3 30 eta 44 urte bitartekoak; %30,6 45 eta 64 urte bitartekoak; eta gainerako %2,1 65 urte eta gehiagokoak ziren. Ondorio nagusietako bat da biztanleria gazteenak berriazko garrantzi handia duela bizitegi-bazterketa larriko egoeren artean. 30 urtetik beherako pertsonak identifikatutako kasu guztien %43,1 dira, baina biztanleria osoaren artean %16,6 baino ez dira. Halaber, beste datu deigarri bat jarri behar da mahai gainean: lortutako emaitzen arabera, aurkitutako 10 pertsonatik bat baino gehiago adingabea da. 275 adingabekoei buruz ari gara (kasu gehienetan), gutxienez guraso batek lagunduak direnak, eta egoera oso desberdinetan daudenak. Egoera horiek ondokoak dira: genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako baliabideetako ostatuak (74 haur eta nerabe), gizarte-larrialdiko edo gizarteratzeko etxebizitzetako egonaldiak (171 adingabe), adingabeak ardurapean dituzten familiak salbuespen gisa hartzen dituzten gaueko harrera-zentroetako ostatuak (27 adingabe) eta kaleko egoerak (3 adingabe).

Bilakaeraren ikuspegitik, adingabeen pisua gero eta handiagoa dela ikusten da indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako baliabideez bestelako ostatu-baliabideetan (horietan, adin txikiko biztanleria %54 baino zertxobait gehiago da). Aldaketa horren arrazoi nagusietako bat seme-alabak ardurapean dituzten familiei arreta eskaintzen dieten ostatu-zentroen eskaintza da, gero eta handiagoa dena, baina ez direnak genero-indarkeriaren arlokoak. 2012an, guztietatik %28,6k eskaintzen zuen arreta hori; eta guztira 559 plaza zeuden. 2018an, dagoeneko %35,2 dira, eta, guztira, 700 plaza biltzen dituzte.

4. Bizitegi-bazterketa larrian dauden biztanleen bizi-baldintzak eta premiak

Bizitegi-bazterketa larrian dauden lagunen bizi-baldintzei eta premiei buruzko emaitza nagusi hauek identifikatu dira azterlan honetan¹:

- **Ia lautik batek urtebete baino gutxiago darama etxegabeko egoeran, eta beste laurden batek 5 urte baino gehiago.** Ia laurden batek (%25,5) urtebete baino gutxiago darama egoera horretan, %37,5ek urtebete eta 3 urte artean, %12,7k 4 eta 5 urte artean eta gainerako %24,3k 5 urte baino gehiago. Orokorrean, etxegabe-ibilbide motzak nabariagoak dira kaleko egoeretan eta gaua igarotzeko aterpetxeetan. Baita genero-indarkeriari aurre egiteko baliabideetan ere, oso nabarmen. Aitzitik, gainerako baliabideetan etxerik gabe 5 urte baino gehiago daramaten pertsonen garrantzia handiagoa da.
- **Etxea galdu aurretik, hirutik bat bere etxean bizi zen, eta hamarretik bat erakunde itxietatik zetorren.** Etxerik gabe geratu aurretik, bizitegi-bazterketa larrian dauden lagunetatik ia bi herenek etxe propioan (%33,2) edo senide edo lagunen etxean (%31,5) bizi zirela diote. %13 gela edo pisu batean bizi zen, eta hamarretik batek dio erakunde itxi batetik zetorrela (adingabeen zentroak, kartzelak, ospitaleak edo komunitate terapeutikoak). Haien etxe propioan gehienbat bizi izana adierazten duten pertsonen artean, genero-indarkeria artatzeko baliabideetan bizi diren emakumeak eta 55 urteko eta gehiagoko gizonak nabarmentzen dira. Bigarren aukera, senideen edo lagunen etxea, 30 urtetik beherako gizonezko gazteek adierazten dute gehienbat. Erakunde itxi batetik etortzea askoz ohikoagoa da 18 eta 29 urte bitarteko gizonen artean (%18,7), eta neurri apalagoan izan arren, baita adin horretako emakumeen artean ere.
- **Egiturazko izaerako faktoreak bizitegi-bazterketa larriko hiru egoeretatik ia biren atzean daude.** Etxea galdu izanaren arrazoi nagusiak alderdi hauekin lotuta daude: baliabide ekonomikorik ez izatearekin (%40,6), familia-gatazka edo ezkontza-hausturarekin (%28,7), eta administrazio-egoera irregularrekin lotutako zailtasunekin; kasu gehienetan lan-aukeren galerarekin lotuak direnak (%26,1). Halaber, langabezia-egoerekin edo lan-baldintzen prekarizazioarekin erlazioa duten lan-arazoak nabarmentzekoak dira (%21,3), eta hainbat substantziekin mendekotasun-arazoak (%8,8) zein joko-arazoak (%1,2). Ikuspegi orokor batetik, egiturazko arazoak –batez ere, migrazio-ibilbide zailak eta laneratze-arazoei eta gutxieneko baliabide ekonomikorik ez izateari lotuak– etxegabeen hiru egoeretatik ia biren atzean daude. Horien arrazoi, nolabaiteko orekarekin, harreman- eta pertsona-faktoreak aipatu behar dira, eta, azkenik, erakunde-faktoreak ere, hamar etxegabe-kasutatik bat erakunde baten abandonu-egoeren eta familia-sarerik ezaren ondorio izan zitekeela erakusten baitute. Gizonek emakumeek baino gehiago aipatzen dituzte egiturazko faktoreak, batez ere lan-arazoekin edo arazo ekonomikoekin lotutakoak (%68,8); emakumeen artean, berriz, bereziki harreman-faktoreak nabarmentzen da (gizonen %24,6ren aldean, %57,4), familia-arazoei eta ezkontza-hausturari lotutakoak (%43,2) eta indarkeria matxistari lotutakoak (%28,4).
- **Hamar pertsonatik seik baino gehixeagok etxebizitza batean modu independentean bizitzea aukeratuko luke.** Bizitzeko zer ostatu mota gustatuko litzaielkeen galdetuta, kontsultatutako pertsona gehienek autonomia-itxaropen handia dute: hamarretik seik baino gehixeagok (%62,9) etxebizitza bat aukeratuko luke modu independentean bizitzeko; %34,4k, berriz, etxebizitza partekatu bat eskuratu nahiko luke, eta %7,3k aukeratuko luke soilik gizarte-zerbitzuen baliabide bat. Autonomia-itxaropena bereziki handia da genero-indarkeriako baliabideetan bizi diren emakumeen kasuan, baina baita bizitokia duten gainerako baliabideetan

¹ Analisi hori urriaren 18tik 19rako gauean egin nahi izan zitzaizen elkarrizketari erantzun zioten 1.543 biztanletan oinarritua dago. Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsona heldu guztien %75 dira. Analisi horretan ez dira sartzen iragaitzazko migratzaileekin lotutako egoerak, ezta errefuxiatuentzako harrera-pisuetan dauden lagunei lotutakoak ere.

ere. Aurreikuspen horiek, ordea, kalean dauden pertsonen artean baxuagoak dira: %49k familia bakarreko etxebizitza aukeratuko luke, eta %41k partekatutako etxebizitza.

- **Kalean askoz maizago lo egin izanaren bizipena gizonen artean nagusiagoa da, hala ere, emakumeek biktimizazio handiagoa jasaten dute espazio horretan.** Bizitegi-bazterketa larrian dauden eta 2018ko urriaren 18tik 19rako gauean zenbatu ziren pertsona guztien artean, %18,5 kale-egoeran aurkitu zituzten. Hala ere, kalean lo egin izana, egun batzuetarako eta/edo aldizka bada ere, ez da ostatu hartzeko baliabideren batean lo egiten zuten pertsona gehienengandik urrun dagoen bizipena, izan ere, guztietatik %71,7k adierazi baitzuen noizbait kalean lo egin izana. Gizonen artean (%81) proportzio horrek ia bikoiztu egiten du emakumeen artean ematen dena (%41,2), eta alderik handienak gazteen artean daude.

Aldiren batean kalean lo egin behar izatearen ondorioz, bizitegi-bazterketa larrian dauden biztanleek zein neurritan bizi izan dituzte lapurretak, irainak edo erasoak? Lortutako emaitzek agerian uzten dute noizbait kalean lo egin duten pertsona guztien artean erdia baino gehixeago (%53,3) lapurreta edo erasoren baten biktima izan dela. Diru edo bestelako gauzen lapurretak dira gehien pairatu izandako delitu mota (%37,4), irainak edo mehatxuak (%36,3), eta horien atzetik, eraso fisikoak (%21,1) eta sexu-erasoak (%5,1). Nahiz eta emakumeek kalean igarotzen duten gauen zenbatekoa gizonena baino askoz baxuagoa izan, gaua igarotzen dutenek biktimizazio-arrisku handiagoa bizi dute aipatutako intzidente mota guztietan. Desberdintasun handienak sexu-erasoetan ematen dira: noizbait kalean gaua eman duten gizonen %2,1k eta kaleko bizipena izan duten emakumeen %23,4k jasan duela dio.

- **Etixerik gabeko pertsonen %85ak nolabaiteko harremana du familiarekin.** Kontsultatutako pertsonen %84,9k adierazi du harremanik baduela familiako norbaitekin, aurrez aurre edo beste moduren batean. Hala ere, %15,1k ez luke inolako harremanik izango familiako gainerako kideekin. Kalean aurkitutako pertsonak eta aterpetxeetan gaua eman zutenak, eta atzeritarrak ez diren 55 urteko eta gehiagoko gizonak dira jatorrizko familiarekiko harremana erabat hautsi izanarekin lotzen diren profilak. Aitzitik, familia-harremanak neurri handienean dituzten taldeak genero-indarkeriako baliabideetan dauden emakumeen %94,6 eta 30 urtetik beherako pertsonak izaten dira; bai emakumeen (%85,2) bai gizonen kasuetan (%89,9).
- **Hamar pertsonatik hiruk bakarrik igarotzen du egunaren zatirik handiena. Aterpetxeen erabiltzaileen kasuan, proportzio hori %45era igotzen da.** Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen %28,3k bakarrik igarotzen dute egunaren zatirik handiena. Gizarte-isolamenduko egoerak, emakumeen aldean (%24,4), ohikoagoak izaten dira gizonen artean (%29,6). Genero-desberdintasunak mantendu egiten dira, bai adin-taldeen artean bai nazionalitatea aintzat hartzean. Bakardade-mailarik handiena aterpetxeetan gaua igarotzearekin lotutako egoeretan nabari da, baita genero-indarkeriako ostaturia duten baliabideak erabiltzen dituzten emakumeen artean ere.
- **Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen %57k ez du ikasketarik edo lehen-mailako ikasketak baino ez ditu.** Elkarrizketatutako lagunetatik erdiak baino gehiagok ez du ikasketarik (%12,2) edo lehen-mailako ikasketak baino ez ditu (%44,4), eta heren batek baino zertxobait gehiagok bigarren-hezkuntza osatu du (%36,8). Elkarrizketatutako pertsonen ia %6,7k unibertsitate-ikasketak ditu. Gizonen ikasketa-maila emakumeena baino pixka bat apalagoa da 18 eta 54 urte bitarteko biztanleriaren kasuan. Kualifikazio baxuko mailak, ordea, antzekoak dira 55 urte eta gehiagoko gizon eta emakumeen artean, adin-kohorte horretan lehen-mailako edo beheragoko ikasketak dituztenen proportzioa %65era igotzen baita. Kualifikazio-maila altuenak 30 urtetik beherako emakumeen (%61,5ek gutxienez bigarren-mailako ikasketak ditu) eta emakume atzeritarren (%51,7) artean ematen dira. Unibertsitate-ikasketak ditu genero-indarkeriarako ostaturia duten baliabideetan diharduten emakumeetatik %14,3k, eta kalean aurkitu zituzten pertsonetatik %10,6k.

- **Elkarrizketatutako lagunetatik %15ak lan-jardueraren bat egiten du.** Kontsultatutako pertsona guztien ia %19k adierazi du jarduera edo lanen bat betetzen duela, eta horren truke diru-sarreraren bat jasotzen duela. Haietatik %14,8k okupazio mota bat aipatzen du, irregularra edo noizbehinkakoa dena hein batean, baina ordainsari bat jasotzera bideratzen dena; aldiz, %4,1k eguneko zentroetan edo tailerretan ohiko diren okupazio motako jarduerak aipatzen dituzte, horien bidez ordainsariren bat jasotzen dutena. Lan-okupazioko egoerak, izaera irregularrekoak edo noizbehinkakoak direnak alde batera utzita, ohikoagoak dira kaleko egoeren artean (txatarra saltzea nahiko ohikoa da), baita 30 eta 54 urte bitarteko pertsonen artean ere, gizonak edo emakumeak izanda ere. Aitzitik, adin handieneko pertsonen kasuan, emakumeen kasuan, genero-indarkeriako baliabideetan eta aterpetheen erabiltzaileen artean bereziki txikia da. Pertsona kopuru txiki hori alde batera utzita, gainerako %81,1 dago, inolako lan-jarduerarik egingo ez lukeena. Horien artean, zenbatekoaren zati batek lan-baimenik ez izatearekin (%28,3) edo enplegurik ez izatearekin zerikusia duten arrazoiak aipatzen ditu, nahiz eta lana bilatu (%15,9k adierazi du lanik ez duela). Era berean, %13,9k ikasten ari dela adierazi du eta prestakuntza-prozesu batean dabilela; %13,5, berriz, erretiro-egoeran edo lanerako ezintasun-egoeran dago. Azkenik, %5,3k osasun- edo ezgaitasun-arazoak ditu, eta %1,1k, emakumeak direnak, kontziliazio-arazoak ditu seme-alaben zaintzari aurre egiteko.
- **%56k diru-sarrera propioak ditu, lan-jarduera batetik edo prestazio publiko bat jasotzetik datozenak.** Bizitegi-bazterketa larrian dauden biztanleen diru-sarreretako iturri nagusia laguntza eta prestazio ekonomiko publikoak dira; galdetutako pertsona guztietatik %44,8k jasotzen baititu. %18,8k, aldi berean, lan- edo okupazio-jarduera batetik datorren diru-sarreraren bat jasotzen du. Oro har, hurrengo moduan banatuko litzateke bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen finantza-egoera. Hamar pertsonatik bik baino zertxobait gutxiagok jasotzen du ordainsari ekonomikoren bat betetako jardueragatik (%18,8); beste mota bateko diru-sarrerak jasotzeko aukerak alde batera utzita. %37,1 inguruk izaera publikoko laguntza edo prestazio ekonomikoren bat jasotzen du. Halaber, lanik egin ez eta laguntza edo prestazio publikorik jaso ez arren, gutxienez iturri pribatuetatik laguntza ekonomikoren bat jasotzen du %17,4k (familia, lagunak, hirugarren sektoreko erakundeak). Azkenik, %26,7k ez du inolako diru-sarrerarik (kalean eskatzen dena alde batera utzita), eta erabateko prekarietate ekonomikoko egoera bizi dute. Prekarietate ekonomikoaren arrisku handienak kalean dauden lagunek, 30 urtetik beherako gizonek eta atzerriko jatorria duten gizonek bizi dute. Kasu horietan guztietan, ez du diru-sarrerarik pertsona horien %60k baino gehiagok, edo jasotako diru-sarrerak finantzaketa-iturri pribatua dute.
- **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta %24k jasotzen du.** Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen laurdenak baino zertxobait gutxiagok jasotzen du DSBE prestazioa (%23,8), lau lagunetatik batek ez daki existitzen denik (%25), eta %51,2k prestazioaren ezaguera izan arren, ez du prestaziorik jasotzen; dela baldintzak betetzen ez dituelako (%40,6), dela dagoeneko eskatu duelako (%2,5), edota askotariko beste arrazoi batzuegatik (%8,2). Ezaguerarik ez duen pertsonen profila bat dator atzerriko nazionalitatea duen pertsona batekin (%87,3), 30 urtetik beherakoa dena (%65,1), eta Euskadin bi urte edo gutxiago daramatzen gizonezkoarena (%81). DSBE gehien jasotzen duten taldeen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: genero-indarkeriako baliabideetako emakumeak (%35,1), gizarteratzeko baliabideetan ostatu hartzen dutenak (%30,2) eta 55 urteko eta gehiagoko gizon eta emakumeak (%44,5 eta %52,5, hurrenez hurren). Estaldura-tasarik txikienak, aldiz, kaleko pertsonen artean (%6,3) eta aterpetheetan gaua igarotzen dutenen artean (%14,7) ematen dira, baita atzerriko jatorriko gizonen artean ere (%10,2). Bilakaeraren ikuspegitik, eskura dauden datuek iradokitzen dute diru-sarrerak bermatzeko errentaren estaldura handitu egin dela bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen artean; 2012an %19,8 izatetik, 2018an %23,8 izatera igaro baita.
- **Ostatu-zerbitzuak alde batera utzita, osasun-arretako zerbitzuak eta Lanbidek hornitutakoak dira gehien erabilitako baliabideak.** Galdetutako pertsonen artean gehien erabiltzen diren baliabideak ostatu-zerbitzuak dira. Jakina, ikerketa honen xede nagusia ostatu hartzen duten zentro eta zerbitzuetan ostatu hartzen duten pertsonak dira, eta, horregatik,

gertatzen da erabilera altu hori (%92,6). Kanean dauden pertsonen kasuan, tasa hori %48,4raino jaisten da, eta, beraz, kale-egoeran dauden pertsonen erdiak baino apur bat gehiagok ez luke erabiliko ostaturia duen baliabiderik. Bigarren zerbitzu mota erabiliena osasun-arretakoa da, lehen-mailako arretatik edo arreta espezializatutik edo ospitaletik datozenak (%73,8). Atzetik, Lanbideren bulegoa dator, eta azken hiru hilabetetan, egoitza-bazterketa larrian dauden hamar lagunetik ia seik jo du bulegora (%58,4). Gainerako baliabideak inkestatutako pertsonen erdiek baino gutxiagok erabili ditu azken hiru hilabetetan; hala ere, nabarmentzekoa da %41,9k oinarrizko gizarte-zerbitzuetara jo duela, %41,1ek prestakuntza ematen den zentroetara, eta %26k eta %31k eguneko arreta-zerbitzuak erabili dituela, hala nola, eguneko zentroak eta jantoki sozialak. Neurri apalagoan, zerbitzuak erabiltzen dituztenak kaleko egoerekin erlazioa duten pertsonak dira. Pertsona horien artean, %23,9k ez du bakar bat ere erabiltzen edo zerbitzu bakarra erabiltzen du; kasu gehienetan jantoki soziala edo gizarte-larrialdietako zerbitzua izaten da. Aitzitik, zerbitzuen erabilera gehiena egiten dutenen artean aterpetxeen erabiltzaileak (zentro horietan ostatu hartutako pertsonen %61,1k bost zerbitzu edo gehiago erabili ditu azken hiru hilabetetan) eta emakumeak dira (%58,6k bost zerbitzu edo gehiagotara jo du). Hori bai, lehenengo kasuan, bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen dagokienez, gizarte-jantokiak, gizarte-larrialdietako zerbitzuak eta kaleko hezkuntza-taldeak izan dira gehien erabilitako zerbitzuak; bigarrenen, berriz, osasun-zentroak, Lanbideren bulegoak eta oinarrizko gizarte-zerbitzuak nabarmendu behar dira.

- **Galdetutako pertsonen %36,9k uste du gizarte-zerbitzuek gutxi lagundu dietela edo ez dietela batere lagundu.** Gizarte-zerbitzuekin izandako esperientziagatik, hamarretik batek baino gehiagok (%11,3) uste du ez diotela inolako laguntzarik eman, eta lautik batek (%25,6) gutxi lagundu diotela uste du. Era berean, hamarretik hiruk (%29,5) laguntza nahikoa jaso izana adierazten du, eta gainerako %36,9k, jasotako laguntza oso handia izan dela. Oro har, beraz, hamar pertsonatik seik baino apur bat gehiagok (%63,1) positiboki baloratzen du gizarte-zerbitzuek emandako arreta. Balorazio negatiboak kaleko egoerekin lotutako pertsonen artean jasotzen dira (kanean zeuden pertsonen hiru laurdenek laguntza nulua edo eskasa izan dela uste baitu), baita aterpetxeetan gaua igarotzen dutenen artean ere (%40,4). Balorazio negatiboak ere nabarmenak dira 30 urtetik beherako gizonen kasuan (%44,8), atzerriko gizonen kasuan (%45,8) eta, oro har, gizonezkoak direnen kasuan. Galdetutako gizon guztien %40,3k balorazio negatiboa egin du gizarte-zerbitzuekin izandako esperientziari buruz, eta emakumeen arteko proportzioa %26,3koa da.
- **Hamar pertsonatik lauk osasun eskasagoa duela uste du.** Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonetatik %58k uste du bere osasun-egoera ona (%39,6) edo oso ona dela (%18,4), eta hamarretik batek erdipurdikoa dela uste du (%29,2). Aitzitik, emakume guztien ia %13k uste du osasun-maila txarra (%8,8) edo oso txarra duela (%4). Beraz, haien osasunean nariaduraren bat dutela uste duten pertsonen ehunekoak %42koa da, eta EAEko Osasun Inkestaren azken datuek, 2018 urtekoek, prebalentzia askoz txikiagoa ematen dute 15 urteko eta gehiagoko biztanle guztientzat (%12,5). Haien osasuna erdipurdikoa, txarra edo oso txarra dela uste duten pertsonen artean, neurri handiagoan nabarmetzen dira 55 urte eta gehiagoko pertsonak: oso argi gizonen kasuan (%56,4), baina are gehiago emakumeen kasuan (%70,7). Bestalde, 18 eta 29 urte bitarteko gazteen osasun-maila konparatiboki hobea da; gizonen (%71) eta emakumeen (%67,6) ehunekoak oso antzekoak baitira.
- **Atzerriko jatorriko pertsonen %30ak ez du osasun-txartelik, eta atzeritar ez direnetatik %3,7k.** Galdetutako pertsona guztien artean, hamarretik zortziren esanean, osasun-txartel baten titularrak omen dira (%80,1). Hamarretik bi lagunek diotenez, ez omen dute txartel hori (%19,9). Kanean aurkitu zituzten hamar lagunetatik lauk bakarrik zuten osasun-txartela; zenbaketaren gauean aterpetxeetan geratu zirenen %76,5ak eta egonaldi ertain edo luzeko baliabideetan zeudenetatik %89k. Atzeritarren artean, %29,7k ez du osasun-txartelik, eta gainerakoen artean, berriz, %3,7k. Halaber, genero-desberdintasun oso garrantzitsuak ikusten dira. Adin-talde desberdinetan edo nazionalitatearen arabera gizonak eta emakumeak alderatzean, emakumeek osasun-txartela hein handiagoan dutela adierazten dute kasu guztietan.

- **Erdiek gaixotasun larri edo kronikoren bat dute, eta guztietatik %84k tratamendu medikoa jasotzen du.** Galdetutako pertsonen erdiek baino gehixeagok (%51,1) adierazi zuten gaixotasun kronikoren edo larriren bat zutela. Oro har, arazo horiek gero eta ugariagoak dira urteetan aurrera egin ahala (55 urte eta gehiagoko biztanleen %71,8k osasun-arazo larriak ditu, baina 30 urteko beherakoen %27,4k baino ez), eta adin-talde guztietan, baina, batez ere, adin handiagoa duten pertsonen artean, gizonen aldean, emakumeek prebalentzia handiagoa dute gaixotasun mota horietan. Osasun-arazo kronikoa edo larria duten pertsona guztietatik gehienek mediku-tratamenduren bat jasotzen dute arazo horietarako (%83,6), baina %16,4k ez du tratamendurik jasotzen. Pertsona horiek bizitegi-bazterketa larriko egoeran identifikatutako pertsona guztietatik %8,4 dira. Gehienek kaleko egoerekin zerikusia dute edota aterpetxeetan gaua igarotzen dute (%55,3), baita atzerriko jatorriarekin zerikusia dute ere (%72,3); eta gizezkoak dira gehienak (%85,4). Eboluzioaren ikuspegitik, nabarmentzekoa da osasun-arazo larriak edo kronikoak dituzten lagunen gero eta pisu handiagoa. 2012an %39,9 ziren, eta orain %51,1.
- **Nahasmendu eta gaixotasun mentalen prebalentzia %21,7koa da.** Nahasmendu eta gaixotasun mentala dira kontsultatutako pertsonen artean patologiarik ohikoenak, ia %22ri eragiten baitiete. Horren ostean datoz zirkulazio-sistemarekin (%12,2), arnasketarekin (%11,9), traumatismoekin eta gaixotasun osteoartikularrekin (%11,2), eta hepatitisarekin edota GIB-hiesarekin (%9,2) lotutako gaixotasunak. Buruko nahasmenduak dituzten pertsona gehienak aterpetxeak ez diren beste zerbitzu batzuetan igarotzen dute gaua. Zentro horietako prebalentzia %26,8koa da; kalean, berriz, %6,8koa; eta aterpetxeetakoa %16,3koa. Emakumeek gizezko baino prebalentzia handiagoa dute nahasmendu-prebalentzia horietan, eta alde horiek adin-taldean artean eta nazionalitatea kontuan hartuta ere errepikatzen dira. Hala eta guztiz ere, bizitegi-bazterketa larrian dauden lagunen artean emakume gutxiago daudenez, nahasmendu eta gaixotasun mentala duten pertsonen profil nagusia hamar kasutik zazpitan gizon batena izaten da; eta kasuen %72an atzeritarra ez den pertsona batena. Bost nahasmendu edo gaixotasun nagusienak kontuan hartuta, eboluzioaren ikuspegitik ikus daiteke horiek guztiek gora egin dutela (buru-nahasmenduak, zirkulazio-sistemako gaixotasunak, arnas-aparatuko gaixotasunak eta gaixotasun osteoartikularrak eta traumatismoak); hepatitis eta/edo GIB-hiesa izan ezik, horien prebalentzia %9 - %10 ingurukoa baita.